

# EUZKO- IKASBIDEA



«IBER» - en «AMI VASCO»

G-B-B'k euzkeraz argitaratua



¡EUZKALDUNA!

## NACIONALISMOA

### ZER DAN IKASI



EUZKO ARGITALDARIA

ZELAIA eta LAGUNAK

ZARAUZ


1932

R. 92191

Gu Euzkadi'rentzat

Euzkadi Jainkoa'rentzat





## *Arana = Goiri'ri*

(Eskeintza)

*Jainkoa'ren altzotik, Aren eta Euzkadi'ren martiri zeran o'rek, atsegiñez artze'al-dezu nere esku-erakutsi ur'i au.*

*Betirako bego zure izena ori auekin josia; zuk idatzitako (eskribitutako) guziak bezela, Jainkoa ta Aberiarenganako maitasunak eragiñak baititut.*

*Eska zaiozu Jainkoa'ri bere atsaz bizi ditzala; Euzkadi'ko baster izkutuenetaraño ixuri ditzala; eman dezaiela argi ta bero, Jainkoa'z-gero geien ezagutu ta maitatu bear duten arazoaz, euzkotarak argitu ta irazeki ditzaten.*

*Zure bulara, Sabin, Kristo'rentzat eta Euzkadi'rentzat berotu zan. Kristo'rentzat eta Euzkadi'rentzat igitu ta bizi bitez, bai nere au, bai-ta ere oriok ikusi ditzaten euzkotar guzienak.*



*ARANA-GOIRI ' tař SABIN*

# EUZKO-IKASBIDEA

## I

### Sorteñi edo Nazioa

1. *Sorteñia* (erderazko *Nazioa*) ¿zer da?—Jatoñi bereko, ta izkuntza, izaera, oitura, lege, ospe ta asmo berdiñeko gizonek osatutako eñia.

2. Esandako oietan, ¿zer du Sorteñiak beañena?—*Odola* (au da, *abenda* edo giza-kasta; itz batez, *jatoñia*). Oñen uñena: *Izkuntza*. Gañerakoak oien ondorengo dira; jatoñiarenak geienbat.


3. Abenda edo giza-kasta arteko senidetasuna ¿zeren bidez agertzen da?—Izkuntzaren bidez, ederki. Jatoñia nolako, izkuntza alako. Eñi bien izkuntzak zenbat eta elkañen artean ezberdiñago, or nonbait eñiok ere. Esate baterako: Españitañen abenda, edo kasta, txinatañen kastatik uñutiago dago eñusitañenatik baño, eñi oien izkuntzak erakutsi neuñi berean; ta eñusitar-kasta baño senideago du españitar oñek prantzitaña. Jatoñi oien arteko senidetasun gutxiagoa, ala geiagoa, beren izkuntzek erakusten dute garbi.

4. Ta ¿ez al-diteke gertatu, odol bereko ez diran eriek izkuntza bera izatea?—Bai, alegia. Baña artarako, lenbizi, erri oien odolak nastu egin bear izan dira. Elkar-naste oren ondoan, erri kementsuena, ala buru-jantziarena, besteez jabetzen da, ta aien izkuntzak ito egiten ditu, berea bakarik zutik utziaz. Ala gertatu zan España'n: zeltaiak, penizaiak, erromaiak, juduak, moroak, jermandar edo alemanak elkarren artean nastea, ta guzien gañetik erromatar-kasta nagusi gelditzea. Argatik da latinatikoa (au da erromatarren izkuntzatikoa) espainitarren erdera. Argatik ere, espainitarak, portugaldar, italiar, prantzitar-eta, ain elkarren antzeko dituzu, ta era berean oien izkuntzak ere: guziok erromatar edo latindar jatorrikoak baitira.

5. ¿Nagusi gelditutako izkerari, ordea, itsatsiko al-zitzaion menderatutakoen aztarrenik? — Noski Bear ere. Argatik, ba, Kondaira zara ongi usmatzeko, izkuntza zaren arteko senidetasuna ikasi-beaia

6. Esandako ezagunagieez gañera, ¿gorputz tankera utsez ere, ez ote lezaieke antz-eman giza kastai, elkarren senide diran ala ez?—Bai, jauna Gorputzarekiko ezagunagien bidez bereizten ditugu begiratu batean, gizakume beltza, naiz oria, zuria rengandik. Eta ¿nork ez daki alde-aldera, prantzitar ingelandar, alemanitar jatorrak, tankera berezkoa no

lakoa duan?... Bada, ortan jakintsuen diran gizonek zearo bereizten dizute euzkotara (euskalduna); luferko beste abenda, edo kasta, guzietatik bakartzerañoan. Alaz ere, gorputzarekikoa ez da ezer, ezagun-gafi bezela, izkuntzaren eta efi-izaeraren aldean.





## II

# LATEĒRI (Lege-eĒri, aginte-eĒri)

(Erderazko ESTADO)

7. LateĒria (au da: Lege-eĒria, edo erderazko *Estadoa*) ¿zer da?—Aginte beraren azpian dagon gizadia. Batzutan, agintaritza berari ere esan oi-diote.

8. ¿Gauza bera al-dira SorteĒri (edo *Nazio*) ta LateĒri (edo *Estadoa*)?—Ez, iñola ere. SorteĒria berez etoĒria dezu, Jainkoak sortua; LateĒria ez da berezko, baizik gizonek egiña. Abenda edo giza-kasta bizi dan artean, bizi da SorteĒri edo Nazioa ere. LateĒriak, beĒiz, eĒegeen eta eĒi-menderatzaĒleen naikeriz zutitzen eta ondatzen dira. SorteĒriak odolez ta izkuntzez lotzen du gizona; LateĒri edo Estadoak, beĒiz, agintearen bidez.

9. ¿Agerbidez azalduko al-zenidake ori?—Bai, enetxoa. JaĒri itzazu alde batera elkaĒren anai bi; bestera, nagusi beraren bizpairu moĒoi. Anaion arteko ta moĒoion arteko lokaĒriak ¿berdiñak al-dira?... Ez: anaiek Senidetasuna dute lokaĒi; moĒoiek, beĒiz, nagusi beraren mendeko izatea. Oiek aņean dira, bada, ezberdin, SorteĒri ta LateĒri ere.

10. Beraz ¿SorteĒri edo Nazio bakaĒa zatitu al-

liteke, Lateñi edo Estadu bat baño geiago sortuaz?... Ostera ¿Lateñirik bai ote Sorterñi bat baño geiagoz osatua?—Bai; bata ta bestea ditezke. Ingalandar-sajoniañak (anglo-sajonak) jatofñi berekoak dira; alaz guziaz ere, bi Lateñi (edo Estado) egin ditu jatofñi bakar ofek: Ingalanda (Ingalateña) ta Lateñi Elkartuak (Estados Unidos). Ostera: Eñusia'k—garai batekoak batez ere—bazitun gutxienez amar abenda edo kasta, baña guziak lege beraren azpian; au da: Sorterñi asko, ta Lateñi bat.

11. Ofetara-etzkerro ¿bai ote-liteke Sorterña, Lateñi izateke, besteren uztarpean gertatzea?—Bai, alegia. Ikusi, bestela, Euzkadi (Euskaleña), lapondañen eña, ta beste.

12. Eta ofela bizi dan Sorterñiak ¿bere buruaren jabe egiteko, au da, berez Lateñi edo Estadu berezia osatzeko, eskubiderik ez al-du?—Bai; bete-beteko eskubidea izan ere, arik-eta arotzaren mendean gogoz etsi ez duan arte, beintzat.

## Abertzaletasuna

(Nazionalismoa)

13. Sorteri bakoitza bere buruaren jabe izatea; iñoren uztarpean gabe, bere izaera, izkuntza, oituraketa, zaitzea; berak egindako legeen mendean bizitzea... Ori iritxi nai luken politikak, edo asmoak ¿zer du izena?—Abertzaletasuna: erderazko Nazionalismoa. (Zeatzean, erderazko *patriotismo* da abertzaletasuna: Aberri-zaletasuna).

14. Beraz, abertzaletasuna (nazionalismoa) ¿ez da asmo estu, berekoi, kristau-maitasunaren aurkako edo kontrakoa?—Ez, adizkidea. Abertzaletasunak sorteri guzi-guziei ezagutzen die nor-bere buruaren jaun eta jabe izateko eskubidea. Auxe bakañik ez du atsegin: abenda edo giza-kasta batek, indañez ala maltzurkeriz besterik ondatu-beaña.

15. Abertzaletasunak ¿zeintzu ditu etsairik goñienak?—Iru. Bata, *zabalnaikeria*, au da, abenda batek, berekoikeriz, besteak beretu ta zapaldu-beaña. Bestea, *añotz-zalekeria*, au da, nork-gere jatoñiaren muñekoa—oitura, izkuntza, ta abar—aintzakotzat ez artzea, ta añotzarenari eder iriztea (naiz-ta gerea on

izan, ta iñorena kaltegarri). Irugarrena: *eri-batukeria*. Sasi-maitasun oírek jatorri guziak nastu, ta bakar biurtu nai lituke, Sorterri-ezagungarriak, eta egile Jainkoa'ren izena, luíetik kenduaz.

16. Abertzaletasuna (nazionalismoa) ta Erkizale-letasuna (regionalismoa) ¿gauza bera al-dira?—Bai, zera... Erkia, edo Rejioa, zer dan mugatzeko, ez dago esi jakiñik; era berean, Erkizaleletasun edo Rejionalismoa ere, ez diteke zeatz, eta nondik-norañokoa dan, adirazi. Batzutan, eskubide zabal-samarak eskatzen ditu, alako luíaldearentzat; bestetan, askoz ere labur-agoak. Alako tokitan antziñeko lege berezi bat zuti-tzea nai luke; onakoan, agindu aldeko batzu eska-tzen ditu. Batean Jainko-zale, bestean biurizale. As-mo aldakoía da, beraz; era askotako, ta axaletikoa. Ala ikusten degu edozein alderdiri edergarri utse-koan erantsia: Españi'n katoliko zurienetik asi ta Jainko gabeko federalenganaño, guziak erkizale, gu-ziak *rejionalista* dira. Abertzaletasuna, beriz, nazio-nalismoa, ura beti-bat eta bakaía da; Sorterriaren ma-mi-mamiko, ez axaleko.

17. Abertzaletasunak eta katolikotasunak ¿bai-al-dute elkarren arteko zer-ikusirik?—Bai, ta zer-ikusi miña. Kristo'tar diran erietan, abertzaletasuna ez di-teke aitatu, katolikotasunaz elkartuta izan-ezik. Erli-jioa, sorterri oiek biotz-biotzeraño baitute erotua, ta

esan baititeke aien lege, oitura zar, jai ta jolasbideei, kristautasuna dariela. Argatik Polonia'n eta Irlanda'n apaizak eta katolikoak, naiz norbere alderdiko izan, guziak dira abertzale, edo nazionalista, sutsu. Eta, ostera, liberal ta masondarak, efi oien eskubideenganako etsaikeri gordiña agertu izan dute beti.

18. Abertzaletasuna ta katolikotasuna berez adizkide onak izan aŕen, abertzalerik baditeke, noski, kristautasunaren etsai: esate baterako, luterotar, masoi, edo oŕelako beste gaizbideetara emana ¿ez?— Bai. Oŕelakoak, ordea, izen utsez dira abertzale, ala geienez ere beren cŕiaren azkatasun edo libertadea nai dutelako; baña, lengo bikaintasun guzia, antziñeko izate on osoa, ez diote opa; ez dira bear ainbatego, ez dira erabateko abertzale zintzoak.



Ibero Aba Buruñurduna

## IV

# A b e r í a

(Patria)

19. Aberi (edo *Patria*) izen ori aitatu dezun-ekero ¿esango al-zenidake zer adirazi nai-duan?—Pozik esango ere. Itzen sortzeari begiratzen baldin badiogu, Aberi (aba-eri, asabaen eri), Sorteri (sortu-eri) ta Abenda (abaen edo asabaen enda, kasta) alde-aldeko dira. Baña, orain erabili oi-diran bezela, ez dute gauza bera adirazten. Artu dezagun abenda edo giza-kasta bat: antzin-antziñetik luñalde berberean ba-dago, luñalde ori bere-berea ba-du, ordun bada-sakegu (esan dezakegu) ura Aberi bat dala. Askotan, zuzen-zuzenez ez ba-da ere, abenda bizi dan luñ oferixe esan oi-zaio Aberi. Oregatik, judutañen abendak badirauen (irauten duan) añen, orain ezpaitu luñalde bererik, munduan bañena sakabanatuta baitabil, gaurko izkeraz ez litzake egoki judutañoi Aberi deitzea.

20. Beraz, Aberiak mamien-mamiena abenda du (odola, jatorria), ta oñen ondokotzat luñaldea ¿ez al-da ala?—Bai, alaxe da. Eta argatik esan oi-da, maiz, sendiaren (pamiliaren) luzapena dala Aberia.

21. Beraz, gizonak eñi bat bere Aberñi izateko ¿ez du aski aren luñaldean jaioa izatea?—Bai, zera.... Giza-beltza ez da beñere prantzitar izango, Paris'en jaioa izanagatik; eta Gutierrez bat Gipuzkoa'ko baso-basoan sortuko ba'litz ere, e-tzenduke euzkotaña (euskalduna), jaio-tokia gora-bera. Oñetara ezkerro, itsaso-erdiko ontzian jaiotako auñak ez luke aberñirik. Ez aberñi dalakoak lokañi zañagorik bear du. Aberkideek (aberi bera dutenek) badute toki berean sortua beste katerik; jatoñi bakañak, izaerak, izkuntzak, oiturek, eñi-zorion eta eñi-zorigaizto berdiñek lotzen ditute oiek, non-jaioak baño estuxeago.

22. Ala, bada, norbaitek aberña zein duan erabakitzeko, ¿ez da beañezkoa non-jaioa dan ikastea?—Ez, jauna. ¿Beañezko al-dezu zuk, alako, olakoren senide dan, ala ez, erabakitzeko, nor-zein etxeetan jaioak diran jakitea? Ezpaitzera zu Etxeberña'nekoa Etxeberña'ren etxean jaio ziñalako, baizik Etxeberña' sortu zindualako, ala Etxeberña'ren senide zeralako

23. ¿Zer dago, bada, ikusi-beaña, nork-zein aberñi duan erabakitzeko?—Zein abenda edo giza jatoñikoa dan; eta, artarako, abizena (*apelidoa*) ze duan ikastea dezu biderik erosoena.

24. Oñetara-ezkerro, ¿Aberña nai-ta-nai-ezko da, ez nork-bere naiez aldagaña?—Alaxe da. Lizaña gañderitzana, naiz Jerez'en, naiz Arjentinako Zelaie



tan jaioa izan, nai ba-du ta nai ez ba-du, euzkotara da. Ala berean, *Beaumont* izenekoa beti prantzitar, *Taparelli* italiar, *Merry* ingalandar, *Schiller* alemanitar ta *Sánchez* espainiar dituzu: odolak ezpaitu barkatzen.

25. Ta ¿norbere aberria, norbere *patria*, aldatzerik ez al-dago?—Egiazko aberria, berezko aberria, esan bezela, ez dago aldatzerik. Jatorrizko ta odolezko lokarriak eteteko, nai-izatea ez da aski. Besterik bai, egin diteke: norbere egitazko aberriaren ordeztasuna aitortzea, ta bereari zor lizkioken maitasunemanbeharak ugaz-aberriari eskeintzea. Oñela, prantzitarra biur liteke alemaniar, ta aitzakero Alemania maite izan dezake, ta edertsi lezake aren ozpea, ta Prantzia'ren—egitazko aberriaren—kaltez ibili liteke Alemania'n gudamutil, edo soldadu. Alakoak, ordea ¿salgin-ukatzale izena ez al-luke merezi?...

26. Luñalde batean agintarritza bakarra egoteak ¿angoak aberri berekoak diranik bai-al-darakus (erakusten al-du)?...—Aberriak mamiena jatorria ba-du, aginte beraren mendean abenda edo giza-kasta bat baño geiago gertatu-ezkero, badakigu an aberri bana-koak dirala: len-esanetatik argi dator. Bestela, ja-zer nolako astakeriak ontzat artu bear genituen! Bostgarren-(V)—Karla garaian, Espainia'k eñi asko zitun bere mende: plandestar-ungriatar-alemanitar-italiar-


amerikatarak... Aginte bakarrean azpian bizi izan-  
aren ¿español ote-ziran oiek guziak? Ez. Ordun,  
gaur bezelaxe, plandestak Flandes, ungiatariak  
Ungria, alemanitak Alemania ta italiak Italia zu-  
ten aberia. Gerora ere, ala jaraituko dutelakoan  
gauden.

27. Eta ¿Aberri ta Lakerri (*Patria* ta *Estado*),  
berdintzat jotzen dutenak?... ¿Zer derizkiozu oien  
ateraldiari?—Oiek Aberria, ez berezko ta ez betiko,  
baizik gizonen eskuzko ta goizetik gauera aldagai,  
egiten dizute. Ta orielako aberia, aberizale (*patriota*)  
zintzoaren maitetasun-odolen aintzako ez da. Espa-  
ñiar dala-ta, España'ren alde bizitza emango lukela  
dio andaluziar batek; biar edo etzi japonsak An-  
daluzi beretuko balute, lengo su berberaz Japoi  
aberitzat aitortu bear luke. Urena, Napoleon beria  
sortu da, ta España osoa Prantzia'ren mende jara du;  
arezkero, Burgos'tak aberia Prantzia'luteke, ez Es-  
paña; prantzitar bearke luteke, aberiz, amaika aldiz  
Prantzia'ren kaltez goiak esan ta egindako zenbai-  
txe.

28. Baña, gerta bedi gurasoak aberri bereko ez  
izatea: ordun, ¿auak zein du aberia?... Esate batera-  
ko: aita euzkotara, ama ingalanda, ¿auri nortara?  
—Olakoak, jakiña, jatoriz badu aitarenik, bai-ta ama-  
renik ere. Jatori bietatik dakar, nastuan, izaera. Non-

biziak, nola aziak, eta abarrek, jatorri aietarik baten alderantxeago makurtuko dute, goiz ala berandu. Emaiozu, aietaz gañera, aukerabidea, ta ora jatorri bietarik bat nagusitu. Beraz, sortzeari begiratuezkero, beti izango dezu ura enda-nastukoa: erdi-euzkotar, erdi-ingalandar. Gogoz, ordea, zearo batera ala bestera erabakiko da: euzkotar, ala ingalandar.

29. Aberria maitatzerakoan, aberriaren luñaldea ere maite-izaten degu. ¿Zergatik?—Asaba zafen bizileku izan dalako; antzin-antziñetik aiek landua; aien malko-izerdi-odolek gozatua; biloboi, gero ta edera-gotuz, aiek emana; aien otoitz-toki, aien ilobi ta Jainkoa'ri aiek jasotako elizen oñaria; azkenik, jatorria ondatzetik zaitu digun gaztelu dalako.



Sukarieta'ko etxe onetan il zain Sabiu

A. S. B. 1911 (10)

## Abeñari zer zor diogun.

30. ¿Zer du gizonak, laburki esanda, Abeñaren alde egin-beña?—Beroñen jatoría, izkuntza, legeak, aginbide zafak, oiturak, izaera, askitzak (*tradizioak*) ertigintza («*artes*»), luñaldea: au da, Abeñaren alderdi ta zernai guzia, zaitzeko ta zuzpeñ-arazteko, alegiña egitea.

31. Jatorñaren, abendaren, alde ¿nola ari ditekete?—Añotzekiko ezkontza nastuak, al-duan neuñiz, galeraziaz. Abenda zenbat eta uñiago izan, eginbear ori estuago da. Diranetako uñienetakoa, gure abenda euzkotafona, da. Miñoi asko lagun dituten abenda edo giza-kastak, ez dira eñezak ondatzen; baña, gurea bezin txiki diranak, bai.

32. Eñezago esan dezu, adizkidea! ¿Ez al-deritzazu gogortxoak neskatxak ezkontza on baten aukera uts-egin beña, gizongaia añotza dula-ta besterik gabe?—Bai, ez da eginbear ariña. Baña, latzagoak ere zor zaizka Abeñari.

33. Eta...¿zer da, ba? ¿Ain ajola aundiko irizten diozu, neskatx ura, jatorñideaz ezkondu-beañean, añotzaz ezkontzeari?—Gizona! Neskatx bakar batek añotz-ezkontza egitea, ez da zure jatorñarentzako on-

damendi laría. Baña, ezkontza nastu oiek maizago ba'lira—eundaka, milaka—jatoñi uria aguro-asko ondatu lezatekeia, ezin zenezake ukatu.

34. Eta, izkuntzaren alde, abertzaleak ¿zer du egin-beaña?—Bere izkuntzaz jardun, itz-egin; ez ba'leki, ikasi; ta ikasteko adiñekoa ez ba-da, bere aúfei ikasi-arazi.

35. Baña-ta ¿eriko irakasle edo maisuak ez ba'leki, ala irakatsi nai ez ba-lieke?—Abertzaleek, elkar-artuz, eskatu agintariei, maisu ura beste norabait botatzeko; ekartzeko, alegia, erira, bertako izkuntza jakin ta maite-izango duanik.

36. ¡Erezago ari zera, orain ere! ¿Ez al-dezu oartzen, besteren mendean dagon eriak, ia eziñeko gauza izan oi-duala orrelakorik iristea? ¿Ez al-dakizu, menderatzaileen ametsa, menderatuen izkuntza nola galduko, izaten dala?—Bai: zailtasuna ez det ukatuko. Baña, zinistu zadazu: abertzale guziak, bere izkuntzaren alde, elkar-artu-etzkerok, agintariek ere bigundu—beaña luteke. ¿Zer uste dezu, ba? Eñien izkuntzak, agintarien gofotoak ez, ta bertakoen zabarkeriak eta elkar-ezin ikusiak, ondatu oi-ditu, geienbat.

37. Eta, aberiaren izkuntza aúfei irakasteko, aita ezintasun goñian arkituko ba'litz; aukera oberik egokitutuan ¿zer egin bear du?—Izkuntza arenganako

maitetasun bizia, ta uraxe ikasteko gogo sutsua erakutsi; bein ta beñiro, nexka-mutikoei esan, elkarñen artean darabilten izkuntza ez dutela berena, arótza dala; ez dala guraso zañak zekitena; beren jatofia menderatutako eñiarena dala.

38. Etxean neskame ala iñuderik duanak, ¿alako aitzekirik bai al-du?—Ez, noski; artu bailezazke mirabe euskaldunak, auñak, aiengandik, lenen-lenengo izkuntza, euzkera ikasi al-dezaten. Nai-izatea aski.

39. Eta ¿zer derizkiozu ontaz: gurasoek bai jakin euzkera, baña beren auñei ez irakasten?—¿Ola-koak...? Egia esatea nai ba-dezu, oiek Aberia saldu egiten dute, ta atzekoz-auñe tiroz eñetzea merezi luteke.

40. Sorteri batek ¿ajola aundikoa al-du bere izkuntza ez galtzen uztea?—Ia besterik ezer baño ajola aundiagokoa. Izkuntza, eñiaren anima bezela da, aren izaera berak ondoenik eta mamienik erakusten baitu; eñiaren jatofi-agiria da; abenda bizi dalako ezagun gañi; aretxek ondoen beste eñi guziengandik bereizten du, ta nortasuna, nor-izatea, ematen dio.

41. Aberiaren lege zañak zaitzeko, naiz beñizkatzeko, ¿abertzaleak zer egin bear du?—Ikasi egin bear ditu, sakonki; gero, aien alde agertu, itzez ta idatziz (eskribituz).—Zembait eñi-legeen aldean, bereak bikañagoak dirala erakutsi. Lege oiek zutik bal-

din ba-daude, bere burua jañi beza aien mendeko; irabazi-beahez-edo, arotz-legeetara ez bedi makurtu, ta babesgaritzat ez bitza artu.

42. Eta ¿agimbide zañen alde? — Aiek sutsuen, osoen, ta abeñiaren alderako egokienik aitortzen ditun alderdian sartu, ta beroñi lagundu.

43. Eta, Abeñiaren izaera zaitzeko ¿zer?—Izaera ori galtzen, naiz maxkaltzen ere, ez beza utzi; ta inguru-eñietatik berezi duan muña, nabariagotu bezakio.

44. Eta, oituren alde ¿zer?—Maite biotzez, bere jatoñiaren ospe ta aintza bezela. Oitura oien okertzañleak gaiztetsi; norbere abeñiarenak utzi ta arotzarenak artzen ditunari, aseñea-erakutsi.

45. Eta, Abeñiaren askitz (asaba-itz, edo *tradioen*) alde?—Beñere ez bitza aztu. Idazten ba'leki, idatzi (eskribitu) bitza, galdu ez ditezen; bestela, bere auren gogoan ezañi bitza, itzez, betirako.


46. Eta, ¿edergintzaren (*artes*) alde?—Bere aolkuz ta txaloz, lanez ta laguntzaz, eragin beza.

47. Azkenik: Abeñiaren luñalde zaitzeko ¿abertzaleak zer du egin-beaña?—Izkiñuak (armak) artu, beartu-ezkero; ta luñalde ori etsaien mendean utzi baño lenago, bizia ere eman, ala bearko ba'litz.

48. Baña, adi zazu: ezer ez didazu oraindik esan Jainkoarekikoaz, abeñiaren erlijioaz. Abertzale



katolikoak, bere egin-bearen artean, bai al-du, ala ez, erlijioa zaitzekoa?—Gizona: eginbear ori agiri-agiria da ta beste edozein baño garaiagoa. Argatik, besteaz nastutzeke, zeroŕek galdegin bitartean ixilik euki det. Baña, beingoz betirako ikastazu: Jainkoa Abeŕiaren auŕetikoa dala; Jesu-Kristo'ren legearen ondoan, Abeŕia, munduko gauza ilkoŕa dan aldetik, ezer gutxi dala; erlijioa Jainko-lana baita, gizonen gañetikoa, jatoŕi guzietako gizonak zeruratzeko bidea. Beraz, abertzale katolikoak orixe du eginbearik goitsuena: bere abeŕian Kristo'ren ezagupenak eta Arenganako maitetasunak iraun dezaten alegin osoa egitea, Eliza Ama Deunaren irakaspn ta agintepean Abeŕia bizi izan dedin.



Laiazabal Basetxea

## VI

# Euzko-Abertzaletasuna

(Euskaldunen Nazionalismoa)

*Jatorriari dagokionez.*

49. ¿Zer da Euzko-Abertzaletasuna?—Euzko-abenda (euskaldun-kasta) beste guziengandik barkatu, ta azke edo libre bizitzea, eskatzen duan alderdia.

50. Alderdi orek, politika orek ¿zer du oñaria?—Euzko-abenda (euskaldun-kasta) lufeko beste guziengandik berezia edo aparta izatea.

51. ¿Egiaz al-da orein berezia?—Zerbait dakian, ta zentzurik galdu ez duan gizonak, ezin ukatzerañokoa.

52. ¿Nola egiztatu edo aprobatu dezakezu ori?—Nornaik ulertzen (konprenditzen) duan arazoi astun baten bidez. Len esan dizutanez, abendaen arteko aldea, zein-bere izkuntzak erakusten du ezerk baño garbiago. Euzkera, ordea, (euzko-abendaren izkuntza) lufeko guzien aldean, oso da arrotz eta bestelakoa; beraz, euzko-abenda edo jatorriak ere, beste guziengandik askatua, ta berezia, bear.

53. Abenda ta izkuntzen arteko zer-ikusi ori ez dizut ongi ulertzen (konprenditzen)—Agerbidez erakutsiko dizut bereala. Kontu egin zagun, bi anai españitar, beren emazteekin, itxas-ontzi batean sartu dirala. Alako batean, oña ekaitza sortu ta ontzia irauli. Neke goñien ondoan, bikote aietarik bata ugarte edo *isla* batera iristen da; beste senar-emazteek ere, beren buruak legoñeratu ditute, beste ugarte batera elduaz. Ugarte biok oño bakartuak daude, elkañen artean, ez beste iñongo legoñez ere, artu-emanik ez dutela. Bateko ta besteko senar-emazteok, ez irakurtzen (leetzen) dakite, ez libururik dute berekin; gaztelera, egunero erabili-beañoeko itzak besterik ez dakitza, jende ikasigabeak oi bezela. Urteak joan ta urteak etoñi, ugarte bateko ta bestekoen izkera gero ta ezberdiñagotuko da. Ugarte bakoitzean arkitutako landare ta abereai izen beñiak asmatu-beañoez, sendi edo pamili aiek, nork-bere aldetik, eundaka itz berezi sortuko ditute. Itzen aldabideak, bukakera, lotuera ta abar, gero ta banagoak izango dira. Are, len-lenean sendi biek berdin esaten zituten erdel-itzak ere, aldatu, laburtu ala luzatu izango ditute nork-bere gogora. Itz batez esateko: gizaldi zenbaiten buruan, sendi (pamili) bi aien ondorengoak nork-bere izkera bereziaz jardungo dute. Alaz guziaz ere, izkuntza bi oiek senide izango dira beti, biek gazte-

leraren ume; beti ere, elkarékiko aundia agiriko zaie; garai bateko ama bakafaren aztafenik asko erakutsiko dute, ta edozein izkuntzalarik ikusi batean antzemango lieke elkafen senide dirana.

54. Ta ¿sendi (pamili) bi aiek elkarbide ta artuemanik zerbait izan ba'lute?—Ordun: edo biek izkuntza berdindun iraungo luteke; edo, beñipein, izkuntza bi sortu-ezkero, bakarkakoan sortutakoak baño berdintsuagoak litukete.

55. Zure azalpena ulertu det, eta dakusdanez (ikusten dedanez) diozuna egiztatzan yaioa zera— Bai ote!...Orain, bada, burubide ori euzko-abenda edo jatorñari egotzi zaiozu, ta ufengo auetxek aitortu beafean zera: euzkotaña (euskalduna) eñomatar-jatorñikoa ba'litz, latiñaren zuztafetikoa luke bere izkuntza, gaztelera, portugera, italiera ta abar diran bezelaxe; ta jermendar-jatorñikoa ba'litz, izkuntza ere alemanitafenaren senide bear luke, ingelera, sueziara, austriera ta abar diran bezelaxe; ta eslabiar-jatorñikoa ba'litz, izkuntza ere ari artakoa, eñusiar, poloniar, boemiar, serbiar ta abafen izkuntzak diran giñoan; ta zeltaña ba'gendu jatorña, ezpal berekoa izkuntza ere, bretañdañek, irlandañek eta eskoziñek bezela; ta era berean, eguzkiaren azpian diran gañontzeko abenda edo jatorñiekiko. Baña, agiri-agiri-koa dezu, euzkera ez latindar, ez jermendar, ez esla-

biar, ez zeltar, ez ezer ez dala, *euzkera utsa* baizik, ezpaitu belafaren gañean diran beste izkuntzekin senidetasunik txikiena ere. Beraz, nai-ta-ezean, ontzat artu-beaia da egi au: euzko-jatoría bakaia dala, iñongo besterekin ez duala zer-ikusirik.

56. Ez dago txarki esana; baña, dana dala, zuk ere aitortu bear didazu, euzko-jatoriak eta munduko gañontzekoak, elkañen artean zerbaiten antza bear dutela.—Jakiña, gizona. Zerbaiten senidetasuna bear degu, alegia, gañontzeko gizakumeekin, guziok Adan eta Ebe'ren gurasotasuna aitortzen degun ezker-o: Sinismenak ala irakasten digu. Baña, giza-zuriak eta beltzak ere guraso aiengandikakoak dira, ta oregatik ez dezu esango abenda berekoak diranik. Era berean, euzkotarik eta latindarik, esate baterako, lenengo senar-emazte aiengandik gatozen añen, ez gera abenda berekoak: ez-ta uferik eman ere. Euzkerak eta gañontzeko giza-izkuntzak ere, eskier (seguru) gaudeke elkañen artean zerbaiten lokaia badutela; baña ez alegia gaztelarak, prantzerak, italierak eta—esate baterako—ala erusierak eta polonierak elkañen artean, duten senidetasun urkoa.

57. Oretara-ezkero, ¿euzkotaia ez da jatoría: españitaia?—Ez, noski; prantzitar, ingalandar ala ungritar ez dan ainbatean. Ori esatea astakeria da Astakeria, alderdi askotatik. Jatoriarekiko: euzko

abenda ta españitar-abenda elkañen senide ez diralako. Luñaldearekiko: Españi'ko mugari begiratu-etzkerero, euzkotar guziok ezpaigaude mugaz onuztik; puska bat mugaz beste aldera, Prantzi'pean baitago. Kondairarekiko: mugaz onuzko euzkotañok, Españi lateñi edo estaduaren mendeko, mila zortzireun ta ogei-ta-emeretzigañen (1839'g.) urterarte izan ez gerlako; ta oraindik ere, esan bezela, mugaz beste aldeko anaiak ez daude Españia'ren legepean.

58. Ba, euzkotañok españitar ez generala ain agiriko egia ba-da, ¿nola artu izan ditute zorotzat ori aitortzen zutenak?—Enetxoa, gogo-makurantzat eta begiak itxi nai ditutenentzat ezpaitago ez egirik eta ez argirik. Egi, ta egi eder alegia, da Ebanjelioa; gogo zuzeneko gizona aguro irabazten du egi oñek. Alaz guziaz ere ¿ez al-zioten judutañek gaitz-bide iritzi, ta paganoak zorakeri? Baña, e-tzaitza itz aien latzak estutu: egiak bidea uñatuko du, aũean esia jasotzen ba-zaio ere. Aurki gertako da lenaz bestera: euzkotaña españitar dala esango duan gizagaxoari, guziek txoroa deitzea.

59. Eta ain bakartzat jo diteken euzko-abendak ¿bere osotasunean, nastu gabe, iraun al-du, gaurdaño?—Bai, jauna. Inorkin nastu izan ba'liz, onezkero ondatua zan; besteak beregandu ta ezereztuko zun, ain da izan ere uña. Oñezkero, beñiz, euzkeraren

oroipenik ez legoke luñean. Gañera, abenda-nastea ezagun luke—ez ilenean—euzkerak berak ere. Baña, euzkerak, erantsi-beñiak ditun zenbait itz kendu-ekero, ez du latiñaren, gazteleraren, prantzieraren, jermaneraren ez zeltaren, ta ez-ta ere Europa'ko beste iñongo izkuntzaren, aztañenik. Euzko-abendak, beraz, gaurdaño osorik eta nasteke iraun duala, aitortu-beaía dago.

60. Eta gaur bertan ere ¿osotasun ez-naste oñetan irauten al-du?—Ez, zoritxañez. Euzkotar asko, bere jatoñia oinpeturik, antziñako legeak eta asabaen oiturak aztuta, irabazi-bear utsari begi-emanik, arotz-ekontzak gero ta ugariagotzen ari baitira. Argatik, Bilbao, Donosti, Gasteiz (Vitoria) ta Iruña'n, ta Araba'ko zelaiean eta Napañoa'ko Eñibera'n, erdel-abizenak (erderazko apelidoak) mordoka ari dira sartzen, euzko-abizen garbiak ondatuz. Esnatu bedi, bada, euzkotaía lenbait-len; ta bizi-beaíak eragingo aldio, jatoñiak jatorki irauteko bear-beaíezko duan garbikundea.



## VII

# Euzko-Abertzaletasuna

(Euskaldunen Nazionalismoa)

*Edesti edo Kondairari dagokionez.*

61. Euzkotarok gere jaun ta jabe bizi-izateko degun eskubidea ¿gure jatorriaren berezitasunak bakarrik al-dakar?—Ez; eundaka ta milaka urteetan—galazi ziguten arte—gere jaun ta jabe izanak, ere, indartzen du gure eskubidea.

62. ¿Zer da Euzkadi?—Euzko-abenda, euzko-erria, euzko-aberria, Euskalerria, euzko-Lateri (edo Estadu) mordoa: ori guzia adirazten du Euzkadi itzak.

63. Batzuk, erderazko *Vasconia* izenari Euzkadi izenaren balio berbera eman oi-diote. ¿Ala al-da?—Ala irizten diote, baña ez egokiz. Berez, ta zuzeneko izkeraz, *Vasconia*‘k Napañoa ta Gipuzkoa‘ren zati bat besterik e-tzuan artzen.

64. Antziñean. Euzkadi, Euzko-sorteria ¿zenbat aginte-erri, edo lateri, edo estaduetan, zatitua zegotan?—Baziran zenbait; ezagunenak auetxek: Araba, Gipuzkoa, Bizkaia, Napañoa, Laburdi ta Zubero. Guziok, bai elkarren artean, ta bai-ta ere beste edozeñengandik, azke edo libre.

65. ¿Noren aginte-pean datzate orain euzko-lateñi, edo aginte-erñ, izanok?—Bizkaia, Araba, Gipuzkoa ta Napañoa'ren bost erñalde (Goi-Napañoa), España'ren agintepean daude. Be-Napañoa (Napañoa'ren seigañen erñalde edo zatia; España'ko bostgañen (V) Karla garaiean, beste bost senideegandik alde-egiña) ta Laburdi ta Zuberua, Prantzia'ren eskupean bizi dira. Len aitatu-gabeko euzko-lateñi xea-goak, esandakoen bat edo besterekin elkartuta baitzeuden, garai berean beren buru-jabetasuna galdu zuten.

66. Beren buru-jabetza edo azkatasun ori ¿noiz galdu zuten Euzko-lateñiak?—Oraingo mugaz aruzkoak, mila-zazpireun-ta-larogei-ta-bederatzigañen—(1789 g.)—urtean, Prantzia'ko matxinada edo ereboluzio garaiean. Onuzkoak, berogei-ta-amar urtez geroago, mila-zortzireun-ta-ogei-ta-emeretzigañenean—(1839-g.).

67. ¿Zein eskubidez azkatasuna kendu zitzaien?—Indañoaren eskubide gaiztoz.

68. Ta euzkotarñak, mendeko biurtu-etzkeru, ¿etsi al-dute uztañi ofekin?—Ez: ez dute etsi. Ezerk ez du ori egiztatzen.

69. Ez det ondo ulertu, edo konprenditu, mugaz-onuzko euzkotarñak, milazortzireun-ta-ogeitae-meretzigañen urtea bitartean, nola zitezken beren

buruen jaun... ¿Ez al-zun, bada, mila-ta-bereungarenean-(1200-gn.), Gipuzkoa'k, Gaztela'ko eregea bere eregetzat aitortu? ¿Ta Araba'k, mila-irureunta-ogei-tamabigarenean-(1332-gn.); ta Bizkaia'k, mila-irureunta-irurogeitaemeretzigarenean-(1379-gn.); ta mila-bosteun-ta-amabigarenean-(1512-gn.), Napañoa'k?— Ez da ori ulertzen gaitza. Jakin ezazu, Euzko-lateñi oiek len bezin burujabe ta azke, edo libre, gelditu zirala, Gaztela'ko eregeren mendean jañiagatik. Beren lege bereziak berdin gorde izan zituten, ta bai-ta lege-batzañeak ere; diru ta gudarekiko, agintebide naiz epaibideekiko (juezaekiko), lengo erabide berbera zuten, len bezin jaun ziran. Auxe beste aldapenik e-tzan izan: España'ko erege, euzkotañen erege ere aitortzea; geretzako bakañik erege berezia bilatzen ibili gabe. (1) Ta argibide geixeago eman-beañez, esan zagun: erege aiek Gaztela'n zituten eskubideak, eta Euzkadi'n zitutenak, berdiñak e-tzirala, ez gutxiagorik ere; ezpaitzuten Euzkadi'n agintzen Gaztela'ko erege ziran aldetik, baizik Napañoa'ko, ta Araba'ko, ta Gipuzkoa'ko erege, ta Bizkaia'ko jaun

(1) Irugañen Yon, Bizkaia'ko Jaun izatez zortzi urte zeramazkiela, sartu zan, (1379'gañen urtean, I—lenengo—Yon izenez), Gaztela'ko erege izatera. Beraz, ez Bizkaia'k Gaztela'ko erege beretzat artzea gertatu zan, baizik ostera: Gaztela'k, Bizkaia'ko Jaun zegoana, bere eregetzat aitortzea.

ziran aldetik; ta Gaztela'ko elege izatea e-tzutela aski, euzko-lateñietako elege, naiz jaun, izateko; lateñi bakoitzak, bere lege zafak zaitzeko zin edo juramentoa eskatu-ondoren, aintzat eta elegeztat aitortu-beafak zirala: afezkero zirala emengo elege, naiz jaun; ez lenago.

70. Oñetara-ezkero, 1839'gañen urterarte mugaz-onuzko euzkotañen Lege-batzañeak iraun baldin bazuten, argi dago Euzkadi'n lenago e-tzutela inñanik España'ko elegek eta Korteak egindako legeak. ¿Ez al-da ala?—Ala da, bai: diosun bezelaxe. Ta bide edeña damadazu ortik, *Gaztela'rekiko Elkarte*a deritzaiona ezkeroztik, ta berori gora-bera, onuzko Euzkadi, lenago bezela, bere jaun izan zala, erakusteko. Lateñi batek, aginte-eñi batek, bere jauntza, bere azkatasuna, galtzeko, legegintza du galdu-beaña; bestek egindako legeen mendeko bere burua ikusi-beaña. Baña, 1839'gañena arte, berak beren batzañe nagusietan sortutako legeaz bizi baitziran onuzko euzkotañak, ta España'ko naiz Gaztela'ko legeek emen, Ingalateña'koek ala Txina'koek ainbat beartzen baiginduzen; ezin argiago dakuskezu, 1839'gañen urterarte, onuzko euzkotañok, zearo España'rengandik azke, edo libre, izan giñala.

71. Eta euzkotañon Epai-bideaz, edo auziekikoaz ¿zer diodazu?—Legegintza bezin gereaa, ta España'

ren agintzapetik bakartua, gendukala. 1839-garrena arte, euzkotarik epai-mai edo tribunal bereziak genitun, bai beko malakoak, bai goienekoak; ta, jakinria, epai-mai aiek, ez Gaztela'ko legez ta bai Euzkadi'koaz, auziak epaitu bear zituten.

72. Ta, guda-gaiekikoaz, soldautzakikoaz alegia, zer?—Auxe: euzkotarik, izkilarik (armarik) artu-bearik e-tzuten, Euzkal-eria zaitzeko izan-ezik. Bakar-bakarrik, eregeri Euzko-batzarreak baimena eman-ezkero, eregek atera zitzaken emengo mutilak Euskal-eri'tik kampoan guda (gera) egitera; baina bear-sariz, au da, pagatuta.

73. Diru-gaiekikoan ere, zer beren buru al-zira euzko-larriak?—Bai, jauna. Berek ez bestek agintzen zuten zerga-erari-artzekoetan, au da, kontribuzio-kontuetan; bai-ta ere, oien eraria zertan eralg edo gastatzekoan. Espainia-larriari txanpon bakar be e-tzioten ematen. Inoizka, eregeri eman oi-zioten saria, baina ez bearez, borondatez baizik, Euzkadi'k batzarreen esku-erakutsi bezela. Ta ori ere, Bizkaia bere Jaunnari, Bizkaia'koa un zan aldetik; eta gipuzkoar-arabar-narriak, Gipuzkoa'ko, Araba'ko ta Nafarroa'ko erege zan alde utsetik.

74. Mugaz-onuzko euzko-larriak (Nafarroa' Bizkaia'k, Gipuzkoa'k, Araba'k) zer bai al-zituzten bere mugak?—Bai, jauna; ta bai-ta ere beren Aduana

España'koez beste. (1) España'ren muga-etxe edo aduanak garai artan, Euzkadi'ko ego-aldean zeuden, Ebroibai bazterean; ez, orain bezela, Irun'dik Jaka'ko mendietara, Euzkadi erdibituaz. Ta muga-etxeetaz ari naizelarik, auxe ere esan dezadan: alegia, muga-elxe edo aduana oien ekañi utsez, ta tabakoaren saldu-bideaz, beren bear guziak estaltzen al-zitutela Euzko-lateñiek, eñiari zergak eta petxak bota gabetanik.

75. Eta, Eñi-artekikoan, au da, Europa'ko beste sortefiekiko artu-emanetan, ere, ¿beren esku ta buru al-ziran euzkotañak?—Bai. Espania'ko eñegeekin zer-ikusirik ez ba-lute bezelaxe, Euzko-lateñiek, beste lateñiekin, egin zitzateken elkarketak, naiz eratorako, naiz beren buruen zaitzerako. Ala, mila-larun-ta-larogeitabi-(1482)-gañen urtean, España'ko eñege Katolikoak diralakoen garaiean, Gipuzkoa'k, bere buru utsez, Ingelanda-(Ingalateña)-rekin, amarterako, Pake ta Adizkidezko Itunben edo elkar-aritze bat egin zun. Elkarketa oñen arauz, España'k eta Ingelanda'k elkañekiko buruka sortu-ezkero, gipuzkotañak e-tzuten artan zer-ikusirik, eta ez baten ez besteren alde egotea agintzen zuten.

---

(1) Bizkaia'k, Gipuzkoa'k eta Araba'k aduanarik e-tzuten jañi, baña gogoak ala eman e-tzielako, ez eskubidea e-tzutelako.

76. Eta, Eri-artekiko itunben edo elkarketa oiek egitea, ¿ez al-da azkatasunaren, buru-jabetzaren, ezagungaririk goitsuena?—Bai, alegia. Ta orien bidez antz-emango diozu, 1839'garrena-aurretik Euzkadi azke zan, ala ez.

77. Ordun, norbaitzuk ainbeste aldiz aitatu-beaŕeko euzkotaŕen Espaŕni'ratzea, ta Espaŕnia'rekin bat-egitea, ¿zertan gelditzen dirá?—Ikusi dezu. E-tzan izan odol-naste, jatoŕi-naste; gure abendak gaurda-ñoxe osorik iraun baitu. Ez-ta ere, e-tzan Laterien batuketa 'izan, Euzko-lateŕiak osorik, Espaŕnia'rengandik azke, edo libre, jaŕaitu baitzuten. Geien-geienez, euzkataŕek eta espaŕnitaŕek eŕege bera izatea, bost-gaŕen-(V)-Karla garaiean espaŕnitaŕek eta alemanitaŕek bezela. ¿Buruak eman al-zion ordun iñori, 'Alemani'Espaŕni zanic, ala Espaŕni Alemani, bi lateŕiok eŕege beraren mendeko egon aŕen?... Era beretan, bada: emengo eŕege, naiz jauna, ta angoa, biak bat—baña ez bide bakaŕez—izateak, euzkotaŕok Espaŕni'ko zati ta atal giñanik ez du esan nai.

78. Espaŕni'ko eŕegeen eskubideak Euzkadi'n, ¿zeintzu ziran?—Epaibideaz, (juezarekikoaz) bazuten zer-ikusirik; baña ori ere, ez eskubidez, egin-beaŕez baizik.

79. Euzkotaŕek ¿zer egiten zuten, Espaŕni'ko eŕegeek¿zerbait agintzen ziotenean?—Beren legeen kaltean agindu-ezkero, ez bete: aren aginduaren aŕean,

Lege-Zararen eskubidea jaso, *pase foral* zeritzan *Euzko-Baimenaz*. Ta, agindua euzko-eskubideen kaltezkoa ez ba-zan, ordun berek baieztu, egiten zuten, baiezko orien bitartez indaia artu zezan, ta bete alzedin.

80. Beraz, agindukeri goñieneko garaiean ere, España'ko elegea euzkotarik e-tzuten artzen, gaurko Konstituziozko elege-erdiok baño aintzakotzago?— Ez-ta orienbeste ere; ta eskier (seguru) zaudeke, euzkotarientzat elegeza izen utsezkoa izan zala: apaingañi, ta ez jantzi bearezko. Elegezaren gora-bera euzkotarientzat oso ezereza zalakoxe, etsi zuten bada, ain ezez, arotz-eriko elege beren elegezat aitortzeko. Nekez lotzeko gauza zan elegeza, euzkotaren erilege edo demokazi biziaz, ta beren oitura zarfetaz

81. Gaurko mugaz-onuzko euzko-laterien azkatasuna ¿noiz agortu zan?— 1839'garfeneko Urilare (Octubre)-25'garfenean, karlataren lenengo guda ondorean. Garai oretan, onuzko euzkotarik buñuk aundi ark odolostu ta aulduta zeudelarik, Madric eko agintariek lege bat asmatu ta jafi zuten. Legaren bitartez, Euzko-lateriak España'ko lateriare atal eta zati biurtzen ziran; Euzko-batzaareei inda lapurtzen zieten, España'ko Lege Nagusi edo Konstituzio-pean, ta Madrid'etik egingo ziran lege aginduen menpean, Euzkadi jartzen zutela. Ordue




kero, lengo euzko-lateñi edo estadu aiek, beren norberetasuna, beren nor-izatea, galdu, ta Españi'ko «probintzi» soil dira.

82. ¿Euzkotarantzat bai-al-du lege ark, bear-tze-añako indarrik? — Euzkotarék, 1839 'garénean, beste aginterik e-tzuten ezagutzen, beren batzaréena baizik. Españi'ko agintea, ango Korteen indará, euzkotarék, garai artan, e-tzuten, aintzako: beraz, lege ura ez da bidezkoa.

83. Zoritxaréko egun ura ezkeroztik, ¿egin al-du Españi'ko Gobernuak itunbenik, elkarketarik, euzko-lateñi izanekin? — Bai. Ta euzko-lateñi izanok, obe-bearéz, agian ez zuzenki, ontzat artu ditute, artara diru-arloarekiko azkatasun ondar batzu zaitzen ditutelakoan.

84. Baña, itunben edo elkarketa oiek, ¿ez aldute onetsiko, legezkatuko, 1839'garéneko bidegabekeri latz ura?—Ongi diozu; ta besterik lioken euzkotará, zañetan daraman odolaren aintzako ez da. Gañera, itunben oietxek ere, Madrid'eko agintariek, noiz-nai, lotsagabeki, ukatu ta autsi izan ditute.

85. Beraz, euzkotarék Madrid'eko ugaz agintaríei 1839'garén urtekoz aúfeko azkatasuna biurtzeko, eskatzen dietenian, ¿eskubide oso-osoaz diardute?—Eskubide oso-osoaz, bai; ta azkatasun urá irixteko, euzkotar guziok edozertara gertu egon bear degu, bai goñenera ta latzenera ere.



ANDONI DEUNA BASATXONUA

*Arana - Eniñi omari arborandi non*

## VIII

### Euzko - Abertzale - Alderdia

(Alderdi, edo Partidu, Nazionalista)

86. Euzko-atalen, euzko-senideen, alde, ¿zer bai du iritxi Abertzaletasunak?—Gauzak, mamiz, 1839'gañen urteaz lengora biurtzea, ta, garai artako Euzko-Lateñien buru-jabetza il gabe, guziaz Elkartza eratzearat eratzea: euzko-jatoñia, ta beronen eskubideak, galtzetik zaitu ditzan.

87. Bere nai bakartzat ori duan alderdi edo partidurik ¿bai-al-da?—Bai, jauna: Euzko-Abertzale-Alderdia.

88. ¿Nork asmatu zun Alderdi ori? — Arana-joiri'tar Sabin zeritzan gizon aundiak. Abando'n Bizkaia), 1865'gañeneko ilbeltzak 26 zitula, jaiotan; Sukañieta'n (Bizkaia'n au ere), kristau zuzenaren eriotzaz, 1903'gañeneko Azaroaren 25'gañeneko, il.

89. ¿Alderdi on askoez al-zegoan gizon ura jantzia?—Bere egiteko aundiak eskatzen zitun guziez: kristau garbi-garbi ta sutsua zan; jainkozale bakaña; ziera zuzenekoa; Abeñiarenganako maitale ezin-joña; adimen añaña; izaera-indañez burni ta era

batez maitekor, atsegin, gizarteko; ezerk bildurtze e-tzuana. Itz batez esateko: anima aundia zun, garai pen aundietarako, ta bai-ta ere oñaze miñetarako beraizik (apropos) egiña.

90. ¿Nola asmoratu zitzaien abertzaletasunare azia?—Euzkataron etorkia, izkuntza, kondaira, lege bideak eta izaera ikasiaz; bai-ta ere, Euzkadi ta España ta Prantzia bitarteko artu-emanak gogoan a tuaz.

91. Aron aurretik, ¿ez al-da izan Euzkadi'n abertzalerik, nazionalistarik?—Azkatasun-zale izatea, b ti izan du euzkotarik ezagungari. Azkatasun oie odolez ta kondairaz ditun zuztirik eta oñariak, ze bait euzkotarik bazekizkiten. Alaz guziaz ere, Arana-Goiri'ri zor zaio, inork baño argiagoki euzko-abertzaletasuna agertu-izatea; aren oñariak lur sendo jartzea; euzko-abertzaletasuna gorputz eta odol bitartea. Ari zor ere zaio, Euzko-Abertzale-Alderdiaren sortzea, ta tajutzea; ta, gauzak uste-ezean ez-okert ezkerro, Alderdi zaintzu oiek gaizkatu-(salbatu) bitartea du Euzkadi.

92. ¿Zein goiburu asmatu zun Arana-Goiriaren sortzea: zeintzu itzen bidez azaldu zun Alderdi berriaren mamia?—JAUN-GOIKOA ETA LEGE-ZALDIA izan zan, eta da, Alderdi oien goiburua. JAUN-GOIKO itzak ona zer adirazten duan: Alderdi ortan

ak, Jesu-Kristo'ren eta bere Eliza Deunaren eskubi-  
deak, aitortzen ditutela, ta aien mendean jarita dau-  
dela; gofikeri, gezurbide ta erlijio oker guziak uka-  
tuz. LEGE-ZARÁ itzak auxe adirazten du: Euzkadi-  
ko lengo legeak, edo legeok sortzeko eskubidea,  
aren batzafeak, aren izkuntza (euzkera), antziñako  
oitura zintzoak eta buru-jabetza osoa — legegintzara-  
ko, legeak bete-arazteko, diru-arloekiko, auziekiko,  
gudariekiko ta Eri-arteko joan-etofiekikoa — garai  
bateko indafera erakañi-beaña.

93. ¿Beraz, Euzko-Alderdi Abertzalea alderdi  
katoliko garbia da?—Bai. enetxoa. Alderdi ofek  
Euzkadi'rentzat katoliko-batasuna nai du, ondoren  
guziekin; gauza guzien gañetik Jaun-Goikoa nai du;  
Euzkadi Jaun-Goikoa'rentzat, alegia, 1839'gañen ur-  
teko erorikoa baño lenago bezela. Ta ikastazute au:  
Euzkadi azke, edo libre, baña Kristo'ren etsai baño,  
naiago luke Kristo'ren mendeko, naiz 1931'gañene-  
an bezin lotua egon.

94. ¿Beraz, gezurti nabarmenak, edo ez-jakin  
xoroak, dira, erlijio ta jainkozaletasun izen edeñak  
ezpañetan artuaz, euzko-abertzaletasunari erasoka  
iri ditugunak?—Ederki diozu; ta esango dizut nere  
ritzia. Biotatik bat egin-beaña dago: edo biuñi aien  
italkeria agiri-agirira atera, edo-ta ergel oien txe-  
velkeriak eñukizko iripañez eutzun.

95. Arana - Goiri'ren aberkideek, euzkotarik  
¿nola artu zituten aren ikasbideak?—Banaka batzuk  
su goriz ta biotz berroz; geienak ordea izotza bañ  
areago. Askoen iritziz, zoro, amets-bera utsa zan, t  
ark esanak eziñezko eginbeñak omen ziran.

96. Eta Madrid'eko agintariek ¿zer egin zioten  
—Aiengandik itxaron zitekena, ezagutu baitzute  
Arana-Goiri'ren deadañak indar aundia ar zezake  
Erein-beñian azia ito nai izan zuten. Paper aberkoia  
galazi; batzokiak itxi; gizon aundi ura auzitan nast  
ta giltzapean ere sartu bein baño geiagotan, bideg  
bez; ango beñikarietatik, eta Korteetan, Arana-Go  
ren kaltez beltzak eñan. Oiek guziak egin zitute  
Madrid'eko gure adiskideek, abertzaletasuna ito-a  
motan. Baña alpeñik. Abertzaletasunaren egia,  
Arana-Goiri'ren bularpea, ainbeste txarkerik eragi  
dako begikotasuna ere lagun zutela, garañe azker  
rako atera ziran. Eta begira orain, oraingoari: euzk  
abertzaletasunak bere beñikariak (periodikoak) ba  
tu, batzokirik asko ta asko, ezin zenbatu ala ald  
dikide; ta egingo nuke, ogeitamar urte baño lena  
zearo autsi baietz, Euzkadi gezurpean darabilten  
derdi añotz-zaleak, eta baietz bere mendean a  
euzkotarik geienak.

97. Alderdi ori ¿nola dago eratua? — A  
agintaritzak iru maña ditu. Lenengoa.: Euzkadi-Bi

Batzaía, abertzale guzien buru. Bigaíena: Erki-Buru-Batzaía (au da, Gipuzko-Buru-Batzaía, Bizkai-Buru-Batzaía, ta abar) iñoizko euzko-lateñi bakoitzeko abertzaleen buru. Irugaíena: Uri-Buru-Batzaía, au da, uri (eñi) bakoitzeko buru egiten duan batzaíea. Atzeñian dauden abertzaleen buru egiteko ere, badi-ra beste batzu. Ofela, bada: esate baterako, Gernika'ko abertzaleak biltzen dira ta izendatzen dute uri(eñi) artako Uri-Buru-Batzaía: beronek, izena, Gernika-Buru-Batzaía izango du. Bizkaia'ko Uri-Buru-Batzaí guziek, bilduta, Bizkai-Buru-Batzaía aukeratu-ko dute. Ta berdin Gipuzkoa'koak, Napaíoa'koak, Araba'koak, eta abar. Gero, azkenik, Napaíoa'ko, Bizkaia'ko, Araba'ko ta Gipuzkoa'ko buruen orde-zkoak, bat eginda, Euzkadi-Buru-Batzaía osatzen du-te, ta auxe da guzien Buru.

98. Euzko-Abertzale-Alderdiak ¿ba'al-du bere ikuñin edo bandera?—Bai, Arana-Goiri'k berak atea. Baíena goñia du; mutuez-mutur, zearka, Euzkadi'ren buru-jabetza adirazi nairik, Deun Ander-(San Andrés)-'en gurutzea, orlegiz (berdez); guzien gañetik, gurutze zuzenkakoa, zuriz, gure katolikotasuna adirazten dula. Ikuñin edo bandera ori ez da gaur alderdi batena. Euzkadi guziarena baizik: ori da Euzkotañen egiazko bandera; ori da euzko-ikuñi-ña-(bandera euskalduna).

99. Euzko-Abertzale-Alderdiak ¿bai al-du bere naiak ongi adirazten ditun ereserki edo kantaen- (*himno*) bat? Bai, jauna. Ereserki orek, kanta orek, Euzko-Abendaren Ereserkia du izena. Itzak, Arana-Goiri'renak ditu, ta eresi edo doñua, Zabala'tar Kelda'k, antziñeko euskal-kanta batetik, tajutua.

100. ¿Edeña al-da Euzko-Abendaren Ereserkia? —Bai. Era ortako abesti edo kantai opa ditzaioken alderdi on guziak baditu. Itzez—itz jatofak, zain aundikoak — ezin obeto adirazten du JAUN-GOIKOA ETA LEGE-ZARA'ren muña, artarako Gurutzearen eta Gernika'ko Aritzaren irudiak darabizkiala. Eresia-(doñua) beriz, egokia ta aundizkoa du; euzko-usaia dariona; ikasteko ezeza; ta, ain ezti ta pakezkoa, berdin jo baiditake kalean naiz Jainkoarenean. Euzkotar guziek bear luteke jakin. Abertzaleek, beren batzafe guziak kanta ori abestuz asi ta buka bear litukete.

101. ¿Zeren bidez egiten du bere lana Euzko-Abertzale-Alderdiak?— Berikariak, itzaldiak, batziak, jaiak, batzokiak, antzerki-(teatro)-aldiak, eta beste orelakoen bidez.

102. Baña, ¿ez ote-da eziñeko gauza Alderdi oien naia irixtea, au da, Euzkadi lengoratzea?— Abertzaletasunaren etsaiek itz ori dute beti ezpañetan. Baña nik auxe erantzun nezaioteke: giza-txepe-




lek, alegia, zalari eziñezko esan oi-izan diotela len ere, beren auleria edertu naiez. Edozein eñik, bear bezelako batasunez, ta bear añako suz ta indañez, lan egiten ba-du, gaur ez ba-da biar, iritxiko du bere buruaren jabetza. Kateak austeko, beñogei, eun, beñeun urte bear izango ditu, bear ba-da, baña bai ere noiz-pait autsiko. Ta abertzaleok dioguna eziñezko gauza baldin ba-da, eziñezko ofetxen alde ari ditugu integroak, karlatañak, eta gañontzeko fuerozaleak, Euskal-eñia'ri fueroak biurtu nai omen-dizkate ta. Eñia ez du gaizkatzen-(salbatzen) leneratzeak, baizik eta lenaren mamia maite-izateak. Beraz: landu ta jantzi beza Euzkadi'k bere izkuntza; garbitu beza odola, abenda; gero ta geiago beregandu bedi, izaeraz ta oiturez, arotzenez kutsatzeke; betor beñiro lengo kristautasun sendo artara; 1839'gañen urteaz auñeko egoera, egitazko naiaz opa bezaio bere buruari. Oiek besterik gabe gaizkatuko-(salbatuko) da Euzkadi, ta iraungo du, ta gizaldien ondañeraño eguzkiaren azpian ezaguna izango da.

103. Baña, eman zagun Euzkadi'k iritxi dula lengo azkatasuna.... Beste eñi indartsuek inguratzen dutela, ¿eñez al-luke, gero, bere artan irautea? — Au entzutean, esan liteke Lateñi edo Estadu aunndirik-beste ez dagola lurbiran. Baña, Eñusi, Alemani, Prantzizi, Ingalanda, Txina, Japoe ta Lateñi Elkartuak—(Es-

tados Unidos) alde batera jañi-ezkero, ¿non dira beste Lateñi aundiok? España'ren aldean, Euzkadi ¿er al-da, Serbi Erusia'renean aña? *Lateñi txikiak, aundien erukiari bizia zor diote*: esango didazu, agian Ta nik erantzungo: ez erukiari eskerak bakarrik biz dituzu, baizik Lateñi aundion arteko etsaikeriari ere ta etsaikeri oñek Lateñi aundi berberok ainbat iraugo du. Bestalde, karlatañen bi gudateetan euzkotarrek garaitzeko zenbateko indaía bear izan zan, gogoar ar ezazu. Baldinbaitez, ez al-luke Alemani'k ain gaitza Olanda ala Dinamarca beretzea. Ta ori ere, Euzkadi, ez bere buruaren alde, baizik arotz baten alde ari zalarik. Bestela...; bere eskubide utsari begira azpira baño ii lenago, ari izan ba'litz...; España'k Portugal'ek, Prantzia'k eta Ingalanda'k elkar-artutere (artu zuten bezela), iñork ez daki zertan bukititezken buruka aiek. Gañera, eñi txikiek badut beste bide eder bat, beren buruen irauterako: Late arteko itunben, edo elkar-legeak. Egin zagun, Ingalanda'rekin, ala Lateñi-Batu'ekin, ala Japoe'ekin, Polonia itz-artu egiten dala, elkar-laguntzeko... ¿Aigauza eñeza al-luteke Erusia'k ala Alemania'k aerasotzea, aren azkatasunari ikutzea?... Baña, ¿zari gera gu, iñori begira? Euzkadi azke edo libre zanean, ¿ez al-zegoan Prantzi'ren ta España'ren artean, ta ez al-zitun biok, bera baño askoz aundi

goak? Bai; ta biok dira orain baño indartsuago izan-nak. Bada, Karlo-Magno, amalagañen (XIV) Koldo-bika (Luis), ta Napoleon garaiean, ta Katoliko zeri-tzen eñegeen, ta bostgañen (V) Karla'ren, ta bigañen (II) Pilipa'renetan, Euzkadi'k bere buruaren jabe ira-un zuan bezela, alaxe iraungo luke orain ere; batez ere, Prantzia'k eta España'k, noizpait, beren buru-ak, Jainkolegeen eta gizabidearen aginduetara, jañi nai balitukete.

104. Añazoi edeñak botatzen dituzu, ta onezke-ro alpeñik det geiago galdetzea... Bada, are biribiñagorik ere baneukan, bota-gabea. Auxe dezu: Euzka-di kristotaña da; Euzkadi sinistedun da; Euzkadi'k badaki, Jainko onak ez ditula beñere bere eskutik uzten, aren esanera dauden eñiak; ezin-okeñezko ez-pañetatik ditu Euzkadi'k itz auek ikasiak: *ez dakañe-la garaipena gudamutilen-(soldaduen) ugariak, goi-ko indañak baizik*. ¿Luñeko zeren, ala noren, beldur litzake, bada, Euzkadi, antziñeko arbasoak bezela munduko likixkeriz ta gezuñez bere burua garbi-egiñik, zearo Jainkoa'ren esanera ba'lego?



Sukarieta 'ko il-eri onetan datza Arana-Goiri taf Sabin.

## IX

### Azken - Ondaña

105. Labuñean, ori da Euzko-Abertzale Alderdiaren asmatzaleaz, ta asmoetaz, ta asmook betetzeko bideetaz; alderdi oñen antolapenaz, ta baita ere jartzen zaizkion oztopoei erantzuteko, dasakeguna (esan dezakeguna). Ori irakurtzetik, auxe, noski, atera dezu: bere Abeña—Abeñi *bakaña*; ama bezela, abeña ere, beañez, bakaña baita—; bere Abeña maite duan euzkotarik ez ditekela gelditu Alderdi oñerizena bereala eman gabe, ta Arana-Goiri'k ainbestetan erakutsitako su ta kemen berberaz aren alde lanean ekiteke. Ikusi, gizon aundi ark, 28 urte zituala, lagun batzuk eskeñitako otorduan esandako itzak:


«Aguro-aski asi nintzan Abeña ezagutzen, aren  
›kondaira ta legeen bidez. Baña, gizonak ez du erabaki astunik artu bear, lendanik gauzak argi ikusi, ta asmoaren zuzentasuna ta ondore onak, gogoan zuritu gaberik. Nere alda-aldiak urte bete iraun zun.  
›Oñen buruan, gogoia argi nuen. Abeña ez ezagutzearen lañoa uratu zitzaidan, ta Jaun-Goikoari—  
›Euzkadi'ren betiko Jaunari, alegia—biotza jasoaz, naizen eta dedan guzia Abeñiaren zorion-alde eskeñi nizkan. Zin-(juramentu) egin nuen—ta gaur

»zin ura beñitzen det--nere indar aul apuñez bide  
 »oferi ekingo niola, oztopo guziei arpegi emanaz;  
 »ala bear ba'litz, nere naitasun guziak, odolezkoak  
 »dirala, adiskidezkoak dirala, naiz giza-arteko atse-  
 »giñak eta elkañekikoak ere, nere buruari ukatuz;  
 »ondasunak eta bizia berbera ere, beartu-ezkero,  
 »emango nituala. Ordun, JAUN-GOIKOA ETA LE-  
 »GE ZAÑA biotzean josi zitzaidan, gerora ez azka-  
 »tzeko eraz.... Nik neretzako ez det ezer nai; Euzka-  
 »di'ri opa diot guzia. Oraintxe bertan, nere Aberia  
 »ala bizitze'al-nukela ba'neki, ez bein, eundaka  
 »aldiz, lepoa aizkorari utziko nioke, geroari nere  
 »aldeko oroipenik ere eskatzeke.»

¡GORA BETI TA BETI

JAUN-GOIKOA ETA LEGE-ZAÑA!





EUZKADI

